



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EDUCACIÓN
Y FORMACIÓN PROFESIONAL



INSTITUTO NACIONAL DE
TECNOLOGÍAS EDUCATIVAS Y DE
FORMACIÓN DEL PROFESORADO



MINISTERIO
DE POLÍTICA TERRITORIAL
Y FUNCIÓN PÚBLICA

Gida didaktikoa

GOBERNU IREKIA

Batxilergoa



Gida hau prestatzeko arrazoiak.....	4
Nork prestatu du gida hau?.....	4
Gidaren helburuak	5
Zergatik orain? Hezkuntzan Gobernu Irekia txertatzeko unea	5
Gobernu Irekia hezkuntzaren arloan	6
Gobernuaren eta Administrazio Publikoaren azterketa sakona.....	7
Gobernu irekia: zeri buruz ari gara?	8
Testuingurua eta bilakaera	8
Marko kontzeptual komuna.....	9
Ariketa: "hitzen hodeia" mapa mentala	10
Printzipioak eta balioak	10
Abantailak gizartean	10
Gobernu Irekiaren hiru oinarriak	11
Gardentasuna eta kontu ematea	11
Definizioa	11
Kristalezko hormen metafora	11
Informazioa bilatzeko edo eskatzeko modua	12
Nola baliatu ahal dugu Informazioa eskuratzeko eskubidea?	13
Herritarren parte-hartzea	14
Definizioa	14
Nola hartzen dugu parte?	14
Elkarlana.	17
Zertan datza?	17
Baterako sorkuntza	17
Datu irekiak eta informazioa berriz erabiltzea	18
Teknologia berriak, gizarte-sareak eta Gobernu Irekia.....	19
Laburpena.....	20
Gobernu Irekia hezkuntzaren arloan txertatzea.....	20
Hezkuntza-zentro gardena lortzeko... ..	20
1. urratsa: Identifikatu arazoa eta helburuak.....	20
2. urratsa: Hautatu informazioa	20
3. urratsa: Eskatu informazioa.....	21
4. urratsa: Aztertu eta berrerabili informazioa... ..	21
Parte hartzeko institutua lortzeko.....	21
1. urratsa: Identifikatu non dagoen parte-hartzea eta non egon daitekeen hemendik aurrera	22
2. urratsa: Aztertu parte hartzeko modua	22
3. urratsa: Parte hartu!	22
Elkarlaneko institutua lortzeko... ..	22
1. urratsa: Identifikatu elkarlanean aritzeko aukera eskaintzen duen arazoren bat	22
2. urratsa: Identifikatu elkarlan horretarako behar diren eragileak eta elkarlana non bideratuko den.....	22
3. urratsa: Elkarlana martxan jartzea.....	22

Institutu irekia lortu dugu. Nola jardun behar dugu hemendik aurrera?.....	23
Baliabideak: gehiago jakiteko.....	23
Baliabide elektronikoak.....	23
Gardentasun Atariak:	23
Datu Irekien atariak.....	24
Gardentasun Kontseiluen atariak:	24
Argitalpenak.....	25

GIDA HAU PRESTATZEKO ARRAZOIAK

“**Gobernu Irekia**” kontzeptua gero eta maizago entzuten dugu hedabideetan, politikarien hitzaurreetan, lan akademikoetan, gizarte-sareetan eta abar. Gai kolektiboen gobernua ulertzeko modu berria da, gobernuko eta parlamentuko agintariak ez ezik, beste pertsona guztiak ere nahasten dituen. Hitz batez, **Gobernu Irekia** gure artean dago jada, eta geratzeko asmoarekin heldu da.

Baina, **orduan, Gobernu Irekiaren kontzeptua berria dela esan dezakegu?** Neurri batean bakarrik. Aspaldi daude informazio publikoa eskuratzeari lotutako lege eta arauak. **Suedian**, adibidez, **XVIII. mendekoak** dira arauok. Bestalde, **Gobernu Irekia** berriro zabaldu zen 2009an, **Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren aldeko Memorandumaren** bidez; hori izan zen Ameriketako Estatu Batuetako presidente ohi **Barack Obamak** hartu zuen lehen neurria.

Gobernu eta administrazio publikoen jarduna etengabe eraldatzen ari da egungo gizartean, batez ere, aldaketa teknologiko, sozial, kultural eta ekonomikoen bizitasuna eta sakontasuna direla eta. Hala, herritarren eskariak eta beharrak ikusita, munduko **gobernu eta administrazio publikoek** gero eta **gardenagoak**, **gertukoagoak** eta **sentiberagoak** izan nahi dute. Helburuok lortzen badituzte, bide egokian ibiliko dira **gobernatze demokratikoa**, **kohesio sozial** handiagoa eta **suspertze ekonomiko** oparoa lortzeko.

Gobernu Irekiaren oinarriak gardentasuna, kontu ematea eta parte-hartzea edo elkarlana dira; horien guztien ezaugarriak gida honetan aztertu dira. Gizartea gobernatzeko modua ulertzeko era berria da. Hala, gida hau **2017-2019 aldirako Espainiako III. planari** lotutako tresna bat da, **Gobernu Irekirako Aliantzarena**.

Beraz, gidaren **xedea** da Batxilergoko **ikasle eta irakasleei Gobernu Irekiaren balio eta printzipioak transmititzea**; hala, munduko beste hainbat herrialdetan bideratzen ari diren prozesuan parte hartuko dute. Denon artean Estatu ireki eta arduratsuagoa eraiki nahi dugu, agintari politikoen, legebiltzarren, epaileen eta jabari publikoko ondasunak zein zerbitzu publikoak kudeatzeaz arduratzen diren pertsonen jardunarekin zorrotzak diren herritarrei esker.

Bestalde, gidak **Gaitasun Sozial eta Hiritarra** sustatu nahi du, ezinbestekoa baita pertsonak pertsonalki, sozialki eta profesionalki erabat garatzeko; gainera, gizartean zentzuz jardutearen eta bizi dugun sistema demokratikoan parte hartzearen garrantzia ulertzen laguntzen die.

Agiriaren azken data: 2018ko apirila

NORK PRESTATU DU GIDA HAU?



J. Ignacio Criado. Zientzia Politikoaren eta Nazioarteko Harremanen Saileko irakaslea, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, eta Center for Technology in Government zentroko *research fellow* (State University of New York, SUNY, at Albany). NovaGob-en fundatzaileetako

bat, eta NovaGob.Lab-en zuzendari nagusia (Gobernuaren Laborategia Berrikuntza Publikorako). Aholkularitza, ikerketa eta irakaskuntza lanak egiten ditu Gobernu Irekiaren, Administrazio digitalaren, berrikuntza publikoaren, gizarte-sareen eta administrazio publikoen, elkarrengarritasunaren eta erakundeen arteko elkarlanaren arloan. Administrazio eta Kudeaketa Publikoari buruzko hainbat lan argitaratu ditu. Berrikuntza Publikoari, Gobernu Irekiari eta Administrazio Digitalari buruzko zenbait ikasgai ematen ditu, besteak beste, Ortega y Gasset Institutuaren Zuzendaritza Publikoari buruzko Masterrean, Herri Administrazioaren Institutu Nazionalaren Zuzendaritza Publikoari buruzko Masterrean, Granadako Unibertsitatearen Kudeaketa Publikoari buruzko Masterrean eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren Demokrazia eta Gobernuari buruzko Masterrean.

 [@jicriado](#)



Vicente Pastor. Ikertzailea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Zuzenbide fakultatean, Zientzia Politikoaren eta Nazioarteko Harremanen Sailean. Ikertzailea da NovaGob.Lab-en, Gobernuaren Laborategia Berrikuntza Publikorako. Politika eta Administrazio

Zientzietan lizentziaduna (Valentziako Unibertsitatea). Demokrazia eta Gobernuari buruzko Masterra (Madrilgo Unibertsitate Autonomia). Zuzendaritza eta Azterketa Politikoan diplomaduna (Valentziako Unibertsitatea).

 [@vipaspa](#)

GIDAREN HELBURUAK

Gida honek hainbat helburu ditu; besteak beste, honako hauek:

- **Administrazio Publikoa** eta **Gobernua** ezagutaraztea.
- **Gobernu Irekiaren** printzipioetan oinarritutako **kontzientzia hiritarra sortzea** ikasleengan, denontzako onuragarria izan dadin.
- Gobernu Irekiari dagokionez, nazioartean jada existitzen den **marko kontzeptual** komuna partekatzea, eta, aldi berean, eztabaidarako atea irekitzea.
- **Gizarte demokratikoa** eta **gardentasuna** sustatzea.
- **Jardunbide egokiak** ezagutaraztea, **Gobernu Irekiko** politikak martxan jartzeko.

ZERGATIK ORAIN? HEZKUNTZAN GOBERNU IREKIA TXERTATZEKO UNEA



Gobernu Irekia lehentasun bilakatu da munduko herrialde ugarietan. Hainbat testuingurutan, gobernuak eta administrazio publikoak elkarlanean ari dira, gero eta gehiago, kontzeptu hori eta bere dimentsioak ikusgai egiteko.


2011n sortu zen **Gobernu Irekirako Aliantza** izeneko ekimen aldeaniztuna, eta jada 70 herrialde baino gehiagok egin dute bat; kideen artean, gobernuak eta gizarte zibileko elkarteak daude (batez ere, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzen duten GKEak). Espainia ere Aliantzako kidea da hasieratik, eta duela gutxi estatuko 15 erakundek (udalak eta eskualdeak) egin dute bat.

Zer esan nahi du Gobernu Irekirako Aliantzako kide izateak?

Gobernu Irekirako Aliantzako kide izateko, **Gobernu Irekiko Adierazpena** egin behar da (hori irakurri edo deskarga dezakezu esteka honetan: <https://www.opengovpartnership.org/declaracion-de-gobierno-abierto>).

Bota begirada Gobernu Irekiko Adierazpenari eta komentatu ikaskideekin beste erakunderen batek egindako antzeko adierazpenik ezagutzen duzun. Denon artean, egin Gobernu Irekiko Adierazpena. Adierazpen hori ikastetxearen, zure taldearen, kide zaituen elkarteren baten edo, oro har, gazteen egoerara egokituta egon behar da. Hainbat paragrafotan egituratu ahal duzue, eta horietako bakoitza honela hasi: "Badakigu...", "Onartzen dugu...", "Defendatzen dugu..." eta, bukatzeko, hartutako konpromisoak labur jasotzen dituen paragrafoa: "Horregatik guztiagatik, konpromisoa hartzen dugu...". Helburua da denok batera zuen ingurua hobetzen lagunduko duten zenbait xede jasotzea, Gobernu Irekiari lotutako neurriak sustatuz.

Sartu [esteka honetan \(http://transparencia.gob.es/transparencia/transparencia_Home/index/GobiernoParticipacion/Gobierno-abierto/IIIPlan.html\)](http://transparencia.gob.es/transparencia/transparencia_Home/index/GobiernoParticipacion/Gobierno-abierto/IIIPlan.html) **Espainiako Gobernu Irekiaren III. plana** irakurtzeko, **Gobernu Irekirako Aliantzarekin** (<https://www.opengovpartnership.org/>) batera prestatu dena. Hala, jakingo duzu dokumentu hau nola egituratu den, bere helburuak eta ezaugarri nagusiak zentzuz diren eta zein alorretan aplikatuko den, bai eta zein konpromiso hartu diren ere (egun, Aliantzako kideek 2.500 konpromiso baino gehiago hartu dituzte Gobernu Irekiaren arloan). Dokumentua sakonki irakurri gero, egiaztatuko duzu **Espainiako Gobernu Irekiaren III. planean** proposatutako ekintzetako bat, hain zuzen, gida hau prestatzea dela: Gobernu Irekiari lotutako prestakuntza.



Irudiaren iturria: <https://www.opengovpartnership.org/>

GOBERNU IREKIA HEZKUNTZAREN ARLOAN

Zer egin dezakegu zuri eta batxilergoko gainerako ikasleei **Gobernu Irekia** ezagutarazteko? Dagoeneko arlo publikoarekin zerikusia duten zenbait kontzeptu ikasi dituzun arren, ezin dugu soilik azaldu zer den **Gobernu Irekia**; pixka bat urrunago joan behar gara, Gobernua eta Administrazio Publikoa bezalako kontzeptuak ere aintzat hartu, eta jarduera praktikoak egin; hala, eguneroko bizitzan zuri edo zure inguruko pertsoneri (senideei, lagunei, auzokoei eta abar) eragiten dizueten egoera zehatzen bidez, errazago ulertuko duzu.

Nola hurbilduko dugu Gobernu Irekia ikasgeletara?

Ikasgeletan:

- Heziketa-zentroetako hauteskunde-prozesuetan **parte-hartzea** sustatuz.
- **Informazioa** emanaz (ikasurte bakoitzean dagoen ikasle kopurua, eskola eta jardueren plangintza eta abar).
- Ikasleak animatuz **erabakiak modu adostuan hartzera**.
- Eskola Kontseiluan erabakiak hartzeko prozedurak aztertuz eta akordioak argitaratuz.

Eguneroko bizitzan:

- Ikasleengan **kontzientzia hiritarra** eraginez, Gobernu Irekiaren printzipioetan oinarrituta.
- Ikasleei Gobernua eta Administrazioa ulertzen lagunduz.

Gobernu Irekia izango litzateke, esate baterako, zure ikasketa-zentroak ikasleen ebaluazioari buruzko informazioa ematea. Adibidez: zer iruditzen zaizu irakasleren bati galdetzea azken bost urteetan zenbat ikaslek gainditu duten bere irakasgaiko azken azterketa? (Kontuz! Ezin da ikasleen datu pertsonalik eman; lege debekatuta dago informazio hori ematea). Informazio horrekin, irakasgaia gainditu duten ikasleen portzentajea ezagutu dezakegu, eta aztertu portzentaje hori nola aldatu den azken bost urteetan. Hala, gardena izango da administrazio publikoentzako lan egiten duten pertsonen jardura —kasu honetan, ikasketa-zentroetako langileena—.

Eskola Kontseilurako hauteskundeak

Inoiz pentsatu al duzu zure burua aurkeztea ikastetxeko Eskola Kontseiluan parte hartzeko? Bertan, aukera mordoa dago **Gobernu Irekiaren** printzipioekin lan egiteko, adibidez, plataforma sozial batean taldea sortzea, ikastetxeko ikasle guztiekin, Kontseiluaren bileretan eztabaidatzen diren gaiei buruzko informazioa partekatzeko: eskolak, ordutegiak eta ikastetxearen araudia, edo interesgarria izan daitekeen beste edozein gai. Eskola Kontseilurako zure burua aurkeztu nahi ez baduzu, ez kezkatu. Egin proposamena taldekideren bati, ea bera animatzen den. Arrakasta izango du, ziur!

Aurreko adibidearekin argi geratzen da **herritarren parte-hartzea** eta **konpromisoa** bultzatu nahi baditugu, hau da, **Gobernu Irekia** izan nahi badugu, **hezkuntzaren arlotik** abiatu behar garela. Horretarako, **elkarrizketa** sustatu, **jardunbide berriak** txertatu eta berdinetik berdiner aitu behar gara denok. **Zuk ere lagundu dezakezu Gobernu Irekia eraikitzen!**

GOBERNUAREN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN AZTERKETA SAKONA

Zer da **Administrazio Publikoa**? Eta **Gobernua**? Zertan bereizten dira? Gai konplexua da, izan ere, biek dute botere betearazlea.

Gobernuak izaera **politikoa** du, eta **Espainiako Konstituzioak hala agintzen duelako existitzen da**. Gobernua osatzen dute, alde batetik, presidentea, eta, bestetik, ministerioen arduradunak (azken horien kopurua ez da finkoa, legegintzaldi bakoitzean sortzen diren ministerioen arabera; legegintzaldiek, oro har, lau urteko iraupena dute). Halaber, Autonomia Erkidego bakoitzak bere gobernua du.

Administrazio Publikoa zenbait **organo iraunkorren** multzoa da, objektibotasunez interes orokorren alde lan egiten dutenak; eraginkortasunez, hierarkia baten arabera, modu deszentralizatuan, deskontzentratuta eta koordinatuta jarduten dute, betiere legean ezarritakoa betez. Gobernuarekin gertatzen den bezalaxe, Administrazio Publikoa estatu mailakoa, autonomikoa edo tokikoa izan daiteke. Administrazioak gobernuen **norabide politikoaren** eta botere legegilearen (Parlamentua) arabera jardun behar du.

Hortaz, jakin behar duzu **botere betearazlea**, hau da, Parlamentuan onartutako legeak aplikatzen eta betearazten dituen, **Gobernua** eta **Administrazio Publikoa batzearen** emaitza dela. Dokumentu honetan Gobernu Irekia kontzeptua erabiliko dugu botere betearazlearen bi eremu horiek batera definitzeko.

Aurrerago ageri den irudian ikus dezakezu botere betearazlea, legegilea eta judiziala **“Estatu Irekiaren”** zati bat direla, eta Estatu hori gizarte ireki batean kokatuta dagoela. **Estatu Irekiaren** kontzeptuak Estatuko botere guztiak biltzen ditu, beraz, esan daiteke bilakaera egon dela: Gobernu Irekia Administrazio Publikoan aplikatetik, Estatu Irekia martxan jartzera, Gobernu Irekiko politikekin arlo publiko osoan. Irakaskuntza gida honetan, Gobernu Irekian (gobernu eta administrazio publiko irekietan) ardaztuko gara; alabaina, ez duzu ahaztu behar horrek lotura duela Estatuko beste botereekin eta, oro har, gizartearekin, azken hori denok osatzen baitugu, zuk ere bai.






1. irudia Gizarte irekia

GOBERNU IREKIA: ZERI BURUZ ARI GARA?

Gobernu Irekia gizarteak **gobernatzeko eredu** bat da. Horren arabera, gobernuen eta administrazio publikoen jarduketa **gardena** izan behar da; beren ekintzen **kontu eman** behar dute; herritarren **parte-hartzea** sustatu behar da; eta beste eragileekin **elkarlanean** aritu behar dira. Horrenbestez, agintarien eta herritarren arteko harremana biziagoa da eta orekatuago dago.



Irakaslearekin eta ikaskideekin komenta dezakezu jarraian ageri den definizioa; bertan, **Gobernu Irekiaren** bi helburu nabarmentzen dira: **erabaki publikoak modu egokiagoan hartzea** eta **herritarrek ondasun eta zerbitzu publikoen kudeaketan parte hartzea**.

Gobernu Irekia interakzio soziopolitikoko modu bat da, **gardentasuna**, **kontu ematea**, **parte-hartzea** eta **elkarlana** oinarri dituena. Hala, gobernatzeko modu honen bitartez, elkarriketa sustatzen da; **gobernuen eta herritarren rolak orekatuago** daude; eta herritarrei rol aktiboa egotzen zaie. Helburuak dira **erabakiak modu egokiagoan hartzea** eta ondare zein zerbitzu publikoen kudeaketan **herritarrek aintzat hartzea**; horretarako, **irakatsi egin behar zaie**, eta **berrikuntza publikoa** martxan jarri behar da.

Iturria: Elkarlaneko definizioa. Eztabaida NovaGob gizarte-sarean.

Gobernu Irekiaren definizioan **gobernuen eta herritarren rolak orekatuago** egon behar direla azpimarratzen da, eta **herritarrei rol aktiboa egotzi** behar zaiela. Hortaz, **Gobernu Irekia** gizarteak gobernatzeko modu bat da, eta, horren arabera,

hauteskundeetan hautatutako agintariak, administrazio publikoetako langileak eta gainerako herritarrek elkarrengandik hurbilago daude. Gainera, benetan hala izan dadin, herritarrok, zuk, zure ikaskideek, senideek eta lagunek, hau da, gizarte osoak, egunero izan behar gara **Gobernu Ireki** horren partaide.

Testuingurua eta bilakaera

Gobernu Irekia izendapena aurreko mendean sortu zen. Ideia zen gobernuen eta administrazio publikoen jarduneko **alderdi ilunak**, **hau da, gardenak ez zirenak, murriztea**, eta, herritarrek bi horien jarduketa kontrolatzen eta ebaluatzen laguntzea. Harrezkero denbora luzea igaro den arren, **Gobernu Irekiaren** hastapenak eta **gaur egungo egoera oso antzekoak dira**. Egun, **Gobernu Irekiaren** ideia berreskuratu dugu. Arrazoiak ugariak dira, lehen ez zeudenak. Jarraian ageri den taulan laburbildu ditugu arrazoi horiek.

Gobernu Irekia sustatzen duten aldaketak

- Gardentasunaren kulturaren aldeko jarrera irmoagoa hartzea.
- Hedabideetan ikusten diren **ustelkeria kasuei eta baliabide publikoak modu desegokian erabiltzearen ondoriozko arazoei** toki zabalagoa uztea.
- Gero eta konektatuago dagoen mundu honetan **parte-hartzearen kultura** zabaltzea.
- **Gobernuak eta administrazio publikoak elkarlanean aritzea** beste eragile batzuekin, denen artean gizarteko arazo konplexuak konpondu ahal izateko.
- **Komunikatzeko modu berriak**, teknologia berriak oinarri.
- **Sareko gizarteak garatzea mundu mailan**, batez ere gizarte-sareak eta 2.0 web-eko teknologia baliatuz.


Munduan izan diren aldaketarik berrienak gizakiok gure artean komunikatzeko modu berriei esker gertatu dira. Komunikatzeko modu berri horiek sareen sarean sortu dira, hau da, **Interneten**, eta **"sareko gizarteak"** delakoa hain azkar garatzeak ere lagundu egin du. Garapen hori posiblea izan da **informazioaren eta komunikazioaren teknologien**, **gizarte-sareen** eta **2.0 web-a** delakoaren erabilera zabaldu egin delako.

Adibidez, ordenagailuek, sakelako telefonoek eta **tabletek** guztiz aldatu dute ikasteko eta lan egiteko modua; horiri esker, posible da komunikazio-sare horien bitartez hainbat ekintza egitea: lagunartean zein gurasoen artean eztabaida batean parte hartzea **Whatsapp** bidez; gure herria edo hiria hobetzeko proposamenak egitea Twitter edo Instagram bidez; edota gure Udaletxeko ordezkari politikoei eginen dutenari buruzko informazioa eskuratzea, gardentasun atariaren bidez. Eta nahi duzun lekutik, Internet konexioa duen edozein gailu erabiliz!

Wikipedia. Noizbait erabili duzu bilaketak egiteko? Egin al duzu ekarpenik?

Ba al dakizu Wikipedia inoiz existitu den ezagutzen entziklopediarik zabalena dela? Wikipediak 45 milioi artikulua baino gehiago ditu, ia-ia 300 hizkuntzatan idatziak. Artikulu horiek elkarlanean sortu dira, hau da, munduko hainbat lekutako boluntarioek idatzi dituzte. [Wikipedian \(https://es.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Portada\)](https://es.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Portada) Gobernu Irekiaren definizioa bilatzera animatzen zaitugu. Hala, entziklopediaren itxura ezagutuko duzu (edukiak eta formatua), eta, bide batez, gaian pixka bat sakondu.

Bestalde, ba al dakizu zuk ere Wikipedia osatzen lagundu ahal duzula? Artikulu berriak argitaratu ditzakezu, bai eta jadanik argitaratuta daudenak hobetu ere. Bilatu zure herriari buruzko artikulua Wikipedian, sakatu "Editatu" izeneko erlaitza eta gehitu falta diren datuak, adibidez, eskola eta institutu kopurua. Horretarako, sortu "Hezkuntza" izeneko atala, eta txertatu eskolen izenak eta bakoitzaren historia. Zurea baino ez baduzu ezagutzen, ez larritu; partekatu artikulua eta animatu beste zentroetako ikasleak artikulua horretan beren ekarpena egitera. Hori da kalitatezko edukiak sortzeko biderik onena!



Irudiaren iturria: https://es.wikipedia.org/wiki/Gobierno_abierto

Horrenbestez, **Gobernu Irekiaren** suspertze berri hau testuinguru sozial, ekonomiko, kultural edo politikoari lotuta dago; testuinguru horretan gero eta pisu handiagoa dute teknologiek, eta komunikatzeko moduak eraldatu egin dira. Egia esan, tresna berri horietako asko izango ez bagenitu, ezingo genuke **Gobernu Irekiari** buruz hitz egin dokumentu honetan egin dugun bezala.

Marko kontzeptual komuna


Gobernu Irekia ez da bakarrik gobernuan eta administrazio publikoetan teknologiak erabiltzea. **Gobernu Irekiaren** ezaugarri asko teknologiarik erabili gabe lortu ahal dira, jardunbide demokratikoak sustatu nahi ditugun herritarren jarreraren bidez lortzen baitira; gizarte osoari eragiten dioten arazoei aurre egiteko konpromisoa hartzeko gaitasunaren bidez ere bai; hala, ulertu behar dugu ordezkari politikoei lagundu ahal diegula, gure bizimoduaren eragiten duten gaiei buruz iritzia emanez eta ekintzen bitartez. Gobernuak eta administrazio publikoek "irekiztat" hartu ahal izateko, jarraian ageri den koadro griseko baldintza bete behar dira, gutxienez.

Gobernuak baldintza hauek bete behar ditu irekia izateko:

- Komunikazio-bide zuzenak erabiltzen ditu, aktiboki entzuteko eta erantzunak bizkortzeko, eta herritarrek haien bidez parte hartzen dute.
- Webgunean argitaratzen du funts publikoekin sortutako edo kudeatutako informazio guztia, formatu berrerabilgarrian (datu irekiak).
- Gai publikoetan herritarren, profesional propioen eta beste erakunde batzuen parte-hartze zuzena ahalbidetzeko tresnak erabiltzen ditu.
- Elkarlanean aritzen da beste gobernu eta administrazio publiko batzuekin, bai eta sozietate zibileko beste elkarte batzuekin ere (enpresak eta GKEak), arazo sozialak konpontzeko.

Ariketa: "hitzen hodeia" mapa mentala

Imajinatu aurreko ataletan azaldu ditugun edukiak biltzen dituen **hitzen hodeia**. **Gobernu Irekiak** espaziorik handiena hartuko luke; **gardentasunak**, **kontu emateak**, **parte-hartzeak** eta **elkarlanak**, berriz, bigarren mailan egongo lirateke, eta horietatik aterako lirateke gainerako kontzeptu guztiak: datu irekiak, osotasun publikoa, adimen kolektiboa, erantzukizun partekatua, datu publikoen berrerabiltzea, balio publikoa eta abar.



Ariketa hau taldeka egiteko da; hala, Gobernu Irekiak bultzatzen duen moduan lan egingo duzue: elkarlanean. 3-4 pertsonako taldeak egin ondoren, talde bakoitzak bi hauen artean bat hautatu behar du:

- 1) Egin mapa mentala orain arte Gobernu Irekiari lotuta ikasi ditugun kontzeptuekin.
- 2) Hautatu kontzeptu hauetako bat (gardentasuna, kontu ematea, parte-hartzea eta elkarlana) eta prestatu infografia edo poster digital bat, kontzeptu hori grafikoki azaltzeko.

Animatzen al zarete zuen produktu digitalak gizarte-sareen bidez partekatzea? Produktu digital (infografia edo posterra) baten bidez, marraztu nola ulertzen duzun ideien hodeia, partekatu gizarte-sareetan eta begiratu zure ikaskideek egindakoak. Kontzeptuak modu berean lotu dituzue denek?

Gobernu Irekia, nolabait esateko, azken helburua da. Baina, horra heldu baino lehen, beste helburu batzuk ditugu, hau da, **gardentasuna**, **kontu ematea**, **parte-hartzea** eta **elkarlana** txertatu behar ditugu gure eguneroko bizitzan. Tresna hauek askotariko elementuak dituzte, adibidez, datu irekiak eta horien berrerabiltzea, osotasun publikoa, balio publikoa, adimen kolektiboa eta erantzukizun partekatua. Horiek guztiak ezinbestekoak dira **Gobernu Irekirako** bidean eman behar diren urratsak testuinguruan jartzeko.

Printzipioak eta balioak

Gobernu Irekia, batez ere, **balio** aldaketa da. Haizeak itsasontziaren bela mugitzen duen antzera, balio berri hauek **Gobernu Irekirantz** zuzentzen gaituzte; gobernuak eta administrazio publikoek beti izan behar dituzte gogoan beren ekintzetan, baina ez haiek bakarrik; haientzako lan egiten duten pertsonak eta herritarrok, oro har, ere bai. **Gobernu Irekia** lortzeko balio garrantzitsuenen artean, honako hauek azpimarratu behar dira:

- **Zabaltzea**. Egiten ari dena eta ekintza horiek besteentzako izan ditzakeen ondorioak ez estaltzea.
- **Elkarrekiko konfiantza**. Herritarrek gobernuetan eta administrazio publikoetan konfiantza izatea, eta alderantziz.
- **Lankidetz**. Aldi oro beste pertsona eta erakundeekin elkarlanean aritzeko eta lankidetz sustatzeko ekintzak bultzatzea, denon artean bakarka baino emaitza hobek lortzeko.
- **Inklusibotasuna**. Arrazoi sozioekonomikoengatik, sexu-, etnia- zein erlijio-arrazoiengatik, ideia politikoengatik edota desgaitasun fisiko edo adimen-degaitasunen bat izateagatik pertsonak baztertzten dituzten ekintzei uko egitea.
- **Osotasuna**. Zintzotasunez, leialtasunez, zuzentasunez eta fede onez jardutea beti, eta inpartzial izatea.
- **Berrikuntza**. Gauzak egiteko bide berriak aurkitzeko gai izatea, orain arte egindakoa albo batera utziz, eta pentsatzeko modu alternatiboak bilatzea.

Abantailak gizarte

Gobernu Irekiak zenbait **abantaila izan ditzake**—**hiritarrak, politikoak zein ekonomikoak**— gizarte. Taula honetan laburbildu dira Gobernu Irekiaren **abantaila hiritarrak**. Izenak dioen bezala, gizarte osoari eragiten diote, beraz, zuri ere bai.

Gobernu Irekiaren abantailak herritarrentzako

- **Kontzientzia handiagoa** lortzen da, eta herritarrek hobeto kontrola ditzakete gai publikoak.
- Erabaki politikoetan **eragina izateko gaitasun** handiagoa.
- Iritziak, ezagutzak eta **esperientziak partekatzeko aukera gehiago**, gizarte-sare digitalen bitartez.
- Gizartearen eta Administrazioaren arteko **elkarlana hobetzen da**, ezagutza partekatzeari esker.
- Errazagoa da gaiak **agenda publikoan** txertatzea.
- Herritarren **parte-hartzea sustatzen du**, esku hartu ahal baitute Gobernuaren eta Administrazio Publikoaren ekintzetan.

Abantaila politikoek mesede egiten diete gobernuari eta administrazio publikoei, eta baita sistema demokratikoaren funtzionamenduari ere. Hurrengo taulan ikus dezakezu.

Gobernu Irekiaren abantaila politikoak

- Demokraziaren kalitatea hobetzen du.
- Kontu ematea errazten du.
- Herritarren parte-hartzea eta elkarlana sustatzen ditu.
- Administrazio publikoen ate eta leihoak irekitzen ditu, gardentasuna sustatzeko neurrien bidez.
- Herritarrek instituzio demokratikoengan duten konfiantza berpizten du.
- Zuzenbidezko Estatua sendotzen du.
- Administrazio Publikoen eraginkortasuna hobetzen du.

Bukatzeko, **abantaila ekonomikoak** gizarte osoarengan dute eragina; izan ere, **Gobernu Irekiak** ekonomia hobetzen laguntzen du.

Gobernu Irekiaren abantaila ekonomikoak

- Ustelkeria zailagoa da sektore publikoko arlo guztietan.
- Agintarien eta gobernatuen arteko informazio asimetriak ezabatzen ditu, beraz, lagundu egiten du Administrazio Publikoak herritarrengana hurbiltzeko.
- Jokabide arduratsuak sustatzen dira, eta jokabide desegokiak mugatzen.
- Segurtasun juridikoa hobetzen da, eta, horrenbestez, inbertsioak sustatzen.

GOBERNU IREKIAREN HIRU OINARRIAK

Lehen komentatu dugun bezala, Gobernu Irekiak hiru oinarri nagusi ditu: gardentasuna —honen barruan sartzen da kontu-ematea—, parte-hartzea eta elkarlana.

Gobernuen eta administrazio publikoen arloan, **gardentasunak** esan nahi du **Gobernuarekin eta Administrazio Publikoekin lotura duten gai guztiak zabalitzea**, herritarrek informazioa eskura izateko —formatu berrerabilgarri— eta instituzioengandik gertuago egoteko.

Herritarren **parte-hartzea** prozesu bat da; horren bitartez, herritarrek politika publikoak diseinatzeko, kudeatzeko eta ezartzen laguntzen dute; hala, herritarrek sentitu nahi dute politika horien zati bat direla (ez bakarrik horietan parte hartzen dutela), eta aldi berean beren eskubideak zabaldu eta guztion onari lotutako obligazioak sortu nahi dituzte.

Elkarlana prozesu bat da; horren bitartez, gobernuak eta administrazio publikoak **elkarlanean jarduten** dira beste administrazio publiko eta gobernu batzuekin, edota sektore pribatuarekin eta sozietate zibilearekin, **politika publikoak** zehazte eta zerbitzu publikoak hobetze

aldera. Beste era batera esanda, elkarlana da topagune berriak eta elkarriketarako zein lanerako espazioak sortzea, denok batera ekimenak eta zerbitzuak diseinatzeko.

Hiru kontzeptu horietatik eta horiei lotutako gaitetatik aurrera definituko da gida honetan Gobernu Irekiaren testuingurua.

GARDENTASUNA ETA KONTU EMATEA

Definizioa

Lehenago esan dugun bezala, **gardentasuna** eta **kontu ematea** dira **Gobernu Irekirantz** zuzentzeko abiapuntua. **Gardentasuna** ekintza multzo bat da; horren bitartez, herritarrek eskubidea dute **governuek eta administrazio publikoek erabiltzen duten informazioa ezagutzeko**. Beste era batera esanda, gardentasuna da **governuek eta administrazio publikoek informazioa argitaratzea, inork berariaz eskatu gabe**, eta bestelako informazioa **eskuratze eskubidea** bermatzea, pertsona zein erakunderen batek hala eskatzen duenean.

Bestalde, **kontu ematea** esan nahi du gobernuak eta administrazio publikoek haien jarduketari buruzko azalpenak eman behar dituztela, eta hartzen dituzten erabakien erantzukizuna beren gain hartu. Hortaz, **gardentasuna eta kontu ematea** batera doaz: gobernuak eta administrazio publikoek beren jarduketan eta erabakien erantzule izan daitezela eskatu ahal izateko, eskura izan behar ditugu haiek erabiltzen dituzten datu guztiak. Bi elementu horiek ezinbestekoak dira **Gobernu Irekirantz** zuzendu ahal izateko.

Kristalezko hormen metafora



Beraz, gardentasunari esker, herritarrek jakin dezakete gobernuak eta administrazio publikoek zer egiten duten, eta botere publikoen egintzen eta erabakien jakinaren gainean daude. Kristalezko hormak izatea deritzo horri. Imajinatu zer gertatuko litzatekeen zure herriko udaletxearen horma guztiak kristalezkoak eta gardenak izango balira; herritarrek kanpotik ikusi ahal izango lukete barruan gertatzen den guztia. Horrek kontu ematearekin lagunduko liguke, izan ere, baliabide publikoak modu desegokian erabili direla jakingo bagenu, erantzukizuna galda genezake.

Informazioa bilatzeko edo eskatzeko modua

2013. urtetik, Espainian badago **Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko Legea**. Horren bidez, administrazioen web-atarietan egiten den publizitate aktiboa eta herritarrek informazioa eskuratzeko duten eskubidea arautzen dira.

Zer da **publizitate aktiboa**? Administrazio publikoek informazio eta datu jakin batzuk argitaratu behar dituzte beren gardentasun atarietan; horretarako, publizitate aktiboa erabiltzen da. Informazio hori aldizka eguneratu behar da, inork berariaz eskatu gabe; hala, webgunean sartzen diren pertsonen informazio nahikoa, zehatza eta eguneratua eskuratuko dute.

Informazioa eskuratzeko eskubideak esan nahi du herritarrok edozein informazio eskatu ahal diegula gobernuei eta administrazio publikoei, **Gardentasunari buruzko Legean** aurreikusi diren mekanismoen bitartez, eta legean bertan ezarrita dauden mugekin.

Administrazioek **tresnak** erabiltzen dituzte gardentasunaren printzipioetara egokitzeko, adibidez, **gardentasun atariak**. Gardentasun atariak dira Administrazioak herritarren eskura jartzen duen informazio guztia biltzen duten **webguneak**. Gardentasun atarietan eskura ditzakegu, besteak beste, honako hauek: administrazio publikoen **aurrekontuak**; goi-kargudunen **soldatak**; **ondasunen katalogoak**; kontratuak; beste administrazio publikoekin zein erakundeekin adostutako **diru-laguntzak edo hitzarmenak** eta askoz gehiago.

Gardentasun atarien artean, adibidez, **Espainiako Gobernuaren Gardentasun Ataria** nabarmendu daiteke, milioi eta erdi erregistro baino gehiago dituen. Horrez gain, gardentasun ataria dute autonomia erkidegoek eta tokiko administrazioek.

Espainiako Gobernuaren Gardentasun Ataria

Esteka honen bitartez Espainiako Gobernuaren Gardentasun Atarian sartzen bazara (http://transparencia.gob.es/transparencia/transparencia_Home/index.html) eskuragarri duzun informazio guztia ikusiko duzu. Animatzen zaitugu Ataria miatzera eta Gobernuko kideen soldatak ikustera. Edo, nahiago baduzu, beste instituzioen baten gardentasun ataria bisita dezakezu, eta informazio berbera bilatu. Politikako goi-kargudunen soldata eskuragarri egon behar da administrazio publiko guztien atarian; hortaz, zure Autonomia Erkidegoaren gardentasun atarian (gida honen bukaeran zerrendatu dira atariak) edo zure udalaren atarian ere bilatu ditzakezu. Horrez gain, goi-kargudun baten agenda kontsultatzea ere proposatzen dizugu, eta langile horrek gizarte-sareetan partekatu duenarekin alderatzea. Agenda osoa ageri da Atarian?

portal de la transparencia
ADMINISTRACIÓN GENERAL DEL ESTADO

Publicidad activa | Derecho de acceso | Gobierno abierto | Participación | Más información

Buscar...  [Búsqueda avanzada >](#)

Encuentre la información
Solicite la información
Gobierno Abierto
Participe

Publicidad activa

-  Organizada por materias
-  Según la Ley de Transparencia
-  Organizada por Ministerios

Información y servicios de interés

Novedades

- Se reestructura la Presidencia del Gobierno
- Real Decreto 355/2018, de 6 de junio, por el que se reestructuran los departamentos ministeriales

[Novedades >](#)

Irudiaren iturria: http://transparencia.gob.es/transparencia/transparencia_Home/index.html

Gardentasun atariek zenbait atal dituzte:

- **Informazio instituzionala**, erakundearen gobernuari buruzko informazioa biltzen duena. Kontu ematea errazten du.
- **Lege-informazioa**, gardentasun atariaren jabe den Administrazioari eragiten dion legedia biltzen duena.
- **Informazio ekonomikoa**, aurrekontuei buruzko informazioa biltzen duena.

Nola baliatu ahal dugu Informazioa eskuratzeko eskubidea?

Gerta daiteke bilatzen ari garen informazioa gardentasun atarian ez egotea; kasu horretan, informazioa **eskuratzeko eskubidea** balia dezakegu. Adibidez, oso interesgarria izan daiteke jakitea autonomia erkidego bakoitzeko institutuetaiko ikasleek selektibitatean lortu duten batez besteko nota. Ez da nahitaezkoa horrelako informazioa argitaratzea. Alabaina, zenbait autonomia erkidegotan informazio hori eskatu egin da, eta autonomia erkidegoetako administrazioek argitaratu egin dute. Eta, kasu batzuetan, Gardentasun Atarian gehitu da behin betiko.



Gida honen bukaeran dituzu autonomia erkidegoen gardentasun atarietan sartzeko estekak. Hautatu zure autonomia erkidegoarena eta begiratu aipatu dugun informazio hori eskuragarri dagoen. Argitaratuta ez badago, informazio hori eska dezakezu, informazioa eskuratzeko eskubidea baliatuz.

Informazioa eskatzeko eskubidea baliatzeko, gardentasun atarian dauden **inprimakiak edo harremanetan jartzeko bestelako bideak** erabili behar dira. Horien bidez, behar dugun informazioa eska dezakegu. Administrazioak **30 eguneko epea** du eskaerari erantzuteko eta eskatutakoa bidaltzeko.

Zer gertatuko da Administrazioak erantzuten ez badu? Administrazioak gure eskaerari erantzuten ez badio, **errekurtsioa aurkeztu ahal diogu Gardentasun Kontseilu eskudunari. Gardentasun kontseiluak** estatu mailan eta, autonomia erkidego batzuen kasuan, maila autonomikoan ere, jarduten duten organoak dira. Horien eginkizuna da Espainiako administrazio publikoek gardentasun printzipioak betetzen dituztela egiaztatzea, eta horri lotuta sortzen diren gatazkak konpontzea.

Hala ere, datu guztiak ez dira publikoak; zenbait datu ezin dira eman, nahiz eta eskatu. Gai batzuk bereziki babestu beharrekoak dira, beraz,

ezin da zabaldu horiei buruzko informaziorik. Hala, Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 19/2013 Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazio publikoek eta gobernuak ezin dute zabaldu jarraian ageri direnak kaltetu ditzakeen informaziorik: segurtasun nazionala; defentsa; kanpo-harremanak; segurtasun publikoa; zigor-, administrazio- eta diziplina-arloko legez kanpoko gertakarien prebentzioa, ikerketa eta zehapena; alderdien berdintasuna prozesu judizialetan eta tutoretza judizial eraginkorra; zaintzako, ikuskapeneko eta kontroleko administrazio-funtzioak; interes ekonomiko eta komertzialak; ekonomia- eta diru-politika; sekretu profesionala eta jabetza intelektual zein industrial; konfidentzialtasun-bermea edo erabakia hartzeko prozesuetan eskatutako sekretua; eta ingurumenaren babesa. Muga horiek justifikatuta egon behar dira, eta neurrizkoak izan behar dira, kasuaren arabera. Gatazkarik sortzen bada, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren bitartekaritza eskatu ahal izango da. Bestalde, 15. artikuluan, datu pertsonalen babesa araututa dago.

Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseilua

Kontseiluaren webgunean azalduta dago zer egin behar duzun Administrazioak argitaratu ez duen informazioa eskatzeko prozedura hasteko. Horrez gain, gardentasunari lotuta, administrazio eta organismo publikoei egindako gomendioen ebazpenak kontsulta ditzakezu. Irakurri zeri buruzkoak diren ebazpen horietako batzuk (esteka honetan aurkituko dituzu: http://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/Actividad/Resoluciones.html) eta eskatu Administrazio Publikoari (zuk aukeratzen duzunari) ebazpen horiekin zerikusia duen informazioaren bat. Horretarako, argudiatu Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren erabakia dela. Gardentasun kontseiluaren eginkizuna da gardentasunaren printzipioak betetzen direla bermatzea, autonomia erkidegoetan ere bai.



Irudiaren iturria: http://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/index.html

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Definizioa

Gobernu Irekirantz zuzentzeko, hurrengo fasea herritarren parte-hartzea da. **Herritarren parte-hartzearen** bidez, gizarteko pertsona guztiak nahastu nahi dira denoi eragiten diguten ekintza eta erabakietan. Lehen uste zen hezkuntzarekin, kirolarekin, liburutegiekin, garraio publikoarekin edo lorategi eta parkeekin zerikusia duten ekintza publikoak diseinatzea eta martxan jartzea ordezkari politikoen eginkizuna zela, ia-ia modu eksklusiboan.

Gobernu Irekian, parte-hartzeak jarduteko modu hori aldatzea eskatzen du; hala, guztiok parte hartuko dugu gobernuak hartu nahi dituzten erabakietan eta administrazio publikoek martxan jarri nahi dituzten ekintzetan. Hitz batez, **herritarren parte-hartzearekin** denok hartzen dugu parte politika publikoetan: hezkuntzan, osasunean, garraioan, ingurumen gaietan eta abar. Izan ere, gizarte osoari eragiten dioten gaiak dira. Herritarren parte-hartzeari esker, herritarrek sektore publikoaren kudeaketan duten rol aktiboa sendotzen da.

Parte hartzeko mekanismoen bitartez, herritarrek beren **iritzia eman dezakete eragiten dieten proiektu publikoei buruz**. Baina, horrez gain, gobernuak eta administrazio publikoek gizartean dauden ideia eta ezagutzen berri izateko ere balio du.

Edonola ere, herritarren parte-hartzea ondo antolatuta egon behar da, arazorik egon ez dadin; adibidez, pertsona batzuek bakarrik parte hartzea, edo parte hartu arren gizartean aldaketarik ez egotea.

Nola hartzen dugu parte?

Politikan parte hartzeko modu nagusia, eta ezagunena, hauteskundeetan botoa ematea da. Alabaina, Gobernu Irekian, parte-hartzea urrunago doa.

Alde batetik, **gai publikoetan parte hartzeko aukera gobernuak eta administrazio publikoek herritarrekin duten harremanari esker sortu da**, elkarrekin **politika publikoak** sortzeko eta ebaluatzeko.



Adibidez, eskaera egin ahal zaio gobernu zentralari indarrean dagoen legea aldatzeko eta, pixkanaka, plastikozko gaien erabilera

(platerak, edalontziak eta abar) debekatzeko, oso zaila baita material horiek birziklatzea eta berrerabiltzea. Edo, haurrentzako edari azukredunei lotuta, herri kontsultan parte hartu daiteke. Hala, gobernu autonomikoari eskatu ahal zaio ikastetxeetako jantokiko menuan edari azukredunak eta opilak debekatzeko.

Jarduera: ideia-jasa

Eztabaida ugari daude botere publikoek hartzen dituzten erabakiei buruz: Udalak plaza berria eraikitzea, Gobernu zentralak gazteen enplegurako plana prestatzea, edo Autonomia Erkidegoak kostu handiko ekitaldia antolatu nahi izatea. Zure ustez, zer nolako gaietarako egin beharko litzateke herri kontsulta? Zer nolako proposamenetarako egin zenezake herritar guztiek parte hartzeko moduko kontsulta? Ikaskideen laguntzarekin, egin gaien zerrenda eta hautatu zuen ustez ezinbestekoak diren 3 gai.

Bestetik, **zerbitzu publikoen diseinuan parte hartzean, zerbitzu publiko jakin batzuen erabiltzaileen ikuspegia eta esperientzia aintzat hartu nahi dira**, adibidez, ikastetxe edo institutu bateko ikaslearena, osasun-zentrora doan gaixoarena edo udal kiroldegia erabiltzen duen kirolariarena. Horrelako parte-hartzearen helburua da **zerbitzu publikoak diseinatzeko, berriz definitzeko eta hobetzen laguntzea**. Hau da, orain arte aipatutako kasuetan, ikastetxe/institutuak, osasun-zentroak edo kiroldegia eskaintzen dituen zerbitzuak.

Esate baterako, udalak kontsulta egin dezake, edo auzo jakin bateko biztanleekin lantaldea sortu, auzoa nola hobetu daitekeen aztertzeko. Bileraren batean, enpresaburuen elkarteak adieraz dezake auzoko sarbideak hobetu behar direla, garraiolariei mesedetan, eta horretarako azpiegitura berriak behar direla.

Edo, **kiroldegia**ren kasuan, jarduerak diseinatzeko dituzten pertsonak bilera egin dezakete auzoko talde eta klubekin, kirol bakoitzaren behar zehatzak ezagutze aldera. Hala, errazagoa izango da espazioak eta ordutegiak antolatzea, kirol bakoitzaren beharren arabera. Ikusten dugunez, herritarren parte-hartzeak zerbitzua hobetzen laguntzen du, eta agerian jartzen du herritarren iritzia aintzat hartzen denean hobetu egin daitekeela gobernuak eta administrazio publikoek lana.

Gaur egun, **herritarren parte-hartzea askoz urrunago heldu daiteke, Interneti eta sare digitalei esker**. Aipatu ditugun adibideetan, parte-hartzea aurrez aurrekoa zen: bilerak, batzarrak, debateak eta abar. Hau da, espazio eta une jakin batean egon behar zen parte hartu ahal izateko.

Estatuko Eskola Kontseiluan parte hartzea

Orain arte ikusi dugu beste bide batzuk daudela parte hartzeko, adibidez, kontsulta-organoen bitartez, iradokizunak zein kezak aurkeztuta, edo eskea egiteko eskubidea baliatuz. Adibidez, **Estatuko Eskola Kontseilua** dugu, hezkuntzaren arloarekin lotura zuzena duten sektoreek parte hartzeko organoa. Espainian, kontseilu horri aurkezten zaizkio hezkuntzaren arloko legedian egin nahi diren aldaketak.

Horrez gain, Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Sistemaren egoerari buruzko txostena egiten du urtero; bertan, hezkuntza hobetzeko proposamenak jasotzen ditu, kideek adostu ondoren.

Consejo Escolar del Estado

Inicio Noticias del Consejo Organización Actuaciones Publicaciones

Encuentros de Consejos Escolares Autonómicos

- 23 Encuentro «Las relaciones entre familia y escuela. Experiencias y buenas prácticas»
- 22 Encuentro «Las escuelas de éxito. Características y experiencias»
- 21 Encuentro «El profesorado del siglo XXI»

Consejo Escolar del Estado

El Consejo Escolar del Estado es el órgano de participación de los sectores más directamente relacionados con el mundo educativo. Se crea con la Ley Orgánica reguladora del derecho a la educación en 1985. Su ámbito se extiende a todo el Estado. El Consejo desarrolla también una labor consultiva, de asesoramiento y propuesta al Gobierno en relación con los distintos aspectos del sistema educativo.

Sus integrantes dictaminan los proyectos de normas en materia educativa, que tengan que ser aprobados por el Parlamento, el Gobierno o por el titular del Ministerio de Educación. Asimismo, aprueba para cada curso escolar el Informe sobre el estado del sistema educativo, donde se incluyen las propuestas de mejora de la educación que alcancen el respaldo de sus miembros. Por otra parte, el Consejo Escolar del Estado integra la participación territorial de los diferentes Consejos Escolares Autonómicos a través de la Junta de Participación, compuesta por los respectivos presidentes y presidida por el presidente del Consejo Escolar del Estado.

Para uso de investigadores

Base de datos relativa al estudio «La participación de las familias en la educación escolar», así como a los cuestionarios correspondientes dirigidos a directores de centros, profesores tutores y familias.

Base de datos y cuestionarios (R)

Último informe sobre el estado del sistema educativo

- Informe 2017 sobre el estado del sistema educativo

Participación Educativa

- Número 7: Las relaciones entre familia y escuela
- Número 6: Valores, virtudes y éxito escolar
- Número 5: Conocimiento, políticas y prácticas educativas
- Número 4: Escuelas de éxito. Características y experiencias
- Número 3: Transparencia y mejora de la educación

Irudiaren iturria: <https://www.mecd.gob.es/educacion/mc/cee/portada.html>

Baina **Interneti** esker, herritarrek espazio berria dute parte hartzeko. Herritarrek askotariko tresnak dituzte edozein ideia, iritzi, proposamen edo iradokizun argitaratzeko; beste gobernu, administrazio publiko eta pertsonekin harremanetan jarri ahal dira, berdinetik berdiner, edozein lekutan daudela, aurrez aurre egon beharrik gabe. Beste era batera esanda, herritarrek **erakunde**

politikoengana hurbiltzeko bide berriak aurki ditzakete, molde tradizionalak hautsiz. Hori dela eta, ezinbestekoa da teknologiek eskaintzen diguten bidea aprobetxatzea, betiere, horiek eragin ditzaketen arazoak ahaztu gabe.

Herritarren parte-hartze berri hau zertan datza hobeto ulertzeko, azpimarratu behar da **herritarren parte-hartzea** sustatzeko udalek Interneten egiten duten lana. Beren webgune arruntean edo espezializatu batean, zenbait udalek aukera ematen diete herritarrei beren dirua nola gastatu nahi duten erabakitze (hainbat aukera daude), beste batzuek, berriz, galdeketa egiten dituzte kaleen izenak aldatu nahi direnean edo herriko plazak nola birgaitu erabaki behar denean. Kasu horietan, herritarrek edozein tokitatik (eskolatik, liburutegitik, etxetik...) eta nahi duten orduan parte har dezakete.



Herritarrek parte hartzeko plataformak Interneten

Espainiako udalek plataformak sortu dituzte, oso aktiboki, herritarrek Internet bidez parte har dezaten. Adibidez asko dago autonomia erkidego eta probintzia guztietan, eta ezinezkoa da guztiak aipatzea. Beraz, Espainiako hiri handienetako bi hautatu ditugu: Sevilla eta Madril.

Bietan, udalek plataforma espezializatua dute Interneten (Sevilla, *Decide Sevilla*; eta, Madrilen, *Decide Madrid*), herritarren parte-hartzea sustatzeko. Sartu bi webguneetan eta ikusi zertan parte hartzen ari diren herritarrek, eta zer aukera eskaintzen zaizkien herritarrei. Egin zerrenda laburra eta, gero, komentatu ikaskideekin.



decide sevilla

NO8DO
AYUNTAMIENTO DE SEVILLA

Decide Sevilla

DECIDE SEVILLA es la nueva plataforma de participación ciudadana impulsada por el Ayuntamiento de Sevilla dirigida a todas las personas empadronadas en la ciudad.

A través de este nuevo servicio telemático se someterán propuestas a votación, se plantearán debates para escuchar la opinión de la ciudadanía y se facilitará que todas las personas empadronadas puedan presentar iniciativas que serán analizadas por el gobierno o sometidas a un proceso de participación más amplio.

En Sevilla, TÚ DECIDES.

Consultas
Acceder »

Y tú, ¿qué opinas?
Acceder »

Haz tu propuesta
Acceder »

Irudiaren iturria: <https://www.sevilla.org/DecideSevilla/>



DECIDE MADRID

Entrar Registrarse

Debates Propuestas Votaciones Procesos Presupuestos participativos Ayuda

Presupuestos participativos 2018

El Ayuntamiento revisa y tasa los proyectos más apoyados hasta el 15 de mayo

Proyectos más apoyados

Ver proyectos

ASÍ SE EVALÚAN Y TASAN LOS PROYECTOS CIUDADANOS

EMPIEZA A PARTICIPAR DECÍDETE Y CAMBIA TU CIUDAD

Irudiaren iturria: <https://decide.madrid.es/>

Zertan datza?

Elkarlana da **Gobernu Irekirako** bidaiaren azken fasea. Elkarlanari buruz hitz egiten dugunean, topaguneak eta elkarriketarako zein lanerako espazioak sortzea esan nahi dugu; espazio horietan, gobernu eta administrazio publiko guztiek parte hartzen dute, sozietate zibileko beste elkarte (GKEak), sindikatu, enpresa-erakunde eta herritarren komunitateekin batera, denen artean zerbitzu publikoak diseinatzeko. **Elkarlana** kontzeptuak garrantzia handia ematen dio **berrikuntzari**; dakizun bezala, berrikuntzak esan nahi du gauzak beste modu batera egitea, edo ordura arte imajinatu ere ez diren gauzak egitea.

Gobernu Irekiaren barruan, **elkarlanak** hainbat osagai ditu. Alde batetik, gobernuak eta administrazio publikoek (udalek, autonomia erkidegoek eta Estatuko Administrazio Nagusiak) elkar ulertu behar dute, eta gizarte osorako onuragarriak diren konponbide komunak bilatu behar dituzte.

Bestetik, beste gizarte-eragile batzuek ere parte hartu behar dute horretan; gobernu eta administrazio publikoek ezin dituzte arazoak banaka eta modu isolatuan konpondu, izan ere, gero eta konplexuagoak dira. Hortaz, frogatu nahi da gizarteko beste eragile batzuek —hala nola, enpresek eta hirugarren sektoreko erakundeek (GKEak)— aktiboki parte hartu ahal dutela, gizarte osorako onuragarriak izan daitezkeen ideiak, proposamenak eta konponbideak bilatuz.

Jakina, **elkarlanak** guztion parte-hartzea eskatzen du. **Gobernu Irekian**, herritarrak dira **elkarlanaren** aktibo nagusia; pertsona orok lagundu dezake gizarteko arazo zehatzak konpontzen, bere gaitasun, ezagutza eta jakintzarekin.

Gobernu Irekia eraikitzeko **elkarlanak** eragile, ezagutza eta ideia ugari konektatzen ditu, beraz, aldaketa kultural sakona behar da. Elkarrekin, sarean eta konektatuta lan egitea, berez, balio bat da, eta ikuspuntu berriak sustatu behar dira arazoak eta lan-metodologiak ezagutzeko, bai eta konponbide berritzaileak bilatzeko moduak identifikatzeko ere.

Azken finean, **sozietate zibileko ekimenek** osatzen dute **elkarlana**; horien helburua da **balio publikoa** sortzea, hau da, arazo hori duten herritarren komunitateen bizitza hobetzea. Adibidez, eskola errendimendua hobetzeko komunitate bat sortu daiteke hezkuntzaren arloan, eta horrek zuri eragingo lizuke. Komunitate horretako eragileak (ikasleak, irakasleak, familiak, adituak eta abar) elkarlanean aritzeari esker, zure ikastetxe/institutuan ez ezik, hezkuntzako beste testuinguru batzuetan ere erabil litekeen berrikuntza prototipoa lortuko genuke.

Elkarlanak tokiko administrazioen gardentasuna hobetzen du

Elkarlana da, adibidez, zenbait udalek elkarrekin lan egitea denei eragiten dien arazoren bat konpontzeko, edota denek batera ekintzaren bat martxan jartzeko (adibidez, tokiko administrazioaren gardentasuna sustatzea); horrez gain, udalak **Espainiako Probintzien eta Udalerrrien Federazioarekin (FEMP)** lanean aritu ahal dira, eta komunitate bat sortu ahal dute erakundearen gardentasuna hobetzen lagundu nahi duten eragile —enpresak, hirugarren sektoreko erakundeak (GKEak)...— eta herritarrekin.

Elkarlanean aritzeko, berrikuntzan oinarritutako konponbideak bilatu behar dira, haur da, orain arte egindakoa beste era batera egiten saiatzea, edo orain arte inoiz egin ez den zerbait egitea. Horretarako, guztien ongia hobetzeko konponbideak proposatu behar dira, eremu askotan positiboak izan daitezkeen: ingurumena, pertsonen osasuna, hirigunean bizi diren pertsonen bizi-kalitatea, inguru horretako denden jasangarritasuna eta abar. Jakina, eragile guztien adostasuna lortzea ez da erraza.

Baterako sorkuntza

Baterako sorkuntza da **elkarlanean** aritzea, hau da, esperimentazioaren bidez ikastea, eragile instituzional, sozial eta politikoen interakzioaren bitartez. Elkarlanean aritzea da, arazo sozial errealei konponbide **berritzaileak** aurkitzea ahalbidetzen duten metodologiak erabiliz.

Baterako sorkuntzak arazo zehatzak konpontzeko balio du; hala, **parte hartzeko moduak saiatzen dira egoera aztertzeko, esku hartzeko eta konponbideak bilatzeko**, eta eragile kaltetuen jokabidea eraldatzen hasteko. Horri esker; arazo sozialak hainbat ikuspuntutatik aztertzen dira. Horrenbestez, administrazio publikoetako langileen, akademikoen, sektore pribatuaren eta sozietate zibileko erakundearen arteko **elkarlana** dela eta, **gai publikoen kudeaketak legitimitate eta erantzukizun handiagoak hartzen ditu**.

Azken buruan, **baterako sorkuntzak berrikuntza** irekia sustatzen du, zerbitzu publiko berriak sortzea edo lehendik zeudenak hobetzea eragiten baitu. Hortaz, **berrikuntza** zera da: ideia berri horiek garatzea, aplikatzea eta gizarte osoaren mesedetan eraldatzea; berrikuntza **egoeren, erakundearen eta pertsonen testuingurura egokitu behar da**. Horrez gain, erakundeak eta pertsonak ere egokitu egin behar dira berrikuntzaren ondoriozko jarduera berrietara eta emaitzetara.



Berrikuntzako Laborategiak. Nazioarteko esperientzia.

Berrikuntza publikoko laborategiak dira konponbideak batera sortzeko espazioak, eta Gobernu Irekiak ezartzen duen elkarlanaren ideari jarraitzen diote. Buenos Airesko (Argentina) Smart Lab Berrikuntza Laborategia, adibidez. Baterako sorkuntzarako espazioa da, gobernua, sozietate zibila eta sektore pribatua elkarlanean aritzeko, denen artean arazo sozialak konpontzen saiatzeko. Helburua da eskema tradizioaletik ihesi egitea, eta konponbide simple baina eraginkorrak proposatzea.

Laborategiaren (Smart Lab) webgunean zera jartzen du:

"hiritarren arazo, behar eta jokabideak aintzat hartzen dituzten konponbideak diseinatzeko (...) Metodologia biziak erabiltzen ditugu, adibidez, design thinking eta lean start-up, azken erabiltzaileekin batera arazoak aztertzeko, baterako konponbideak bilatzeko, horien prototipoa egiteko eta baliozkotzeko, gerora hiri osoan aplikatu ahal izateko".



Irudiaren iturria: <http://www.buenosaires.gob.ar/agendadetransparencia/gobierno-inteligente/laboratorio-de-innovacion>

DATU IREKIAK ETA INFORMAZIOA BERRIK ERABILTZEA

Gobernu Irekiaren ezaugarri nagusietako bat da gobernuak eta administrazio publikoek **datuak irekitzea**. Hau da, botere publikoek erabiltzen dituzten datuak argitaratzea, **nahi duenak eskura ditzan, inolako mugarik (teknikoak zein legezkoak) gabe**. Hala, **gardentasuna, eraginkortasuna eta aukera berdintasuna** bermatzen dira.


Gardentasuna bermatzen da, izan ere, iturri ofizialek emandako datuak dira; hortaz, informazioa eskuragarri jartzeaz gain, Administrazio Publiko gardenagoa lortzen da. Horrez gain, eraginkortasuna hobetzen da, eta zerbitzu berriak sortzen, herritarren eta administrazio publikoen elkarlanaren bidez. Azkenik, datu irekiek bermatu egiten dute pertsona guztiek **datuak eskura ditzaketela, aukera berdinekin**.



Datu publikoak irekitzean, errazago kontsulta ditzakete herritarrek eta erakunde publiko zein pribatuak. Adibidez, 2009an, Espainiako Gobernuak martxan jarri zuen Aporta izeneko ekimena; horren helburua da neurriak hartzea gure herrialdean informazioa irekitzeko. Ekimenaren helburua, besteak beste, gobernuek eta administrazio publikoek emandako datuak berrerabiltzeko espazio erabilgarria sortzea da. Aporta ekimena datos.gob.es proiektuaren (Espainiako Gobernuaren datu irekien ataria) barruan sartuta dago, eta adibide ona da datuak irekitzeari eta berrerabiltzeari buruz ari garenean.

Datu Irekien ataria

Espainiako Gobernuaren Datu Irekien Atarian sartzen bazara, ekimenak eta beste testuinguru batzuetan erabil daitezkeen datuen katalogoa ikusiko dituzu. Adibidez, airearen kutsadurari buruzko datuak erabil daitezke arnasketa-arazoak dituzten pertsonen zuzendutako mapa prestatzeko; pertsona bakoitzeko ibilgailu kopuruari buruzko datuak, berriz, errepide-sarea hobetzeko, eskaria kontuan hartuta. Atari honetan dagoen informazioa helburu ugariarekin erabil daiteke.



Irudiaren iturria: <http://datos.gob.es/es>

TEKNOLOGIA BERRIAK, GIZARTE-SAREAK ETA GOBERNU IREKIA

Teknologiak aipatzen ditugunean, **gizarte-sareak ezinbesteko tresnak dira administrazio publiko eta gobernuetarako**. Gizarte-sareen erabilera oso zabaldua dago, eta horrek aukera ematen du lehen aipatu ditugun zenbait **balio** hedatzeko: berrikuntza, irekitzea, inklusibotasuna... Horrez gain, gizarte-sareak modu arduratsuan erabili behar dira, izan ere, zuzenagoa da pertsona ezezagunekin dugun harremana.



Gobernuek eta administrazio publikoek egoki erabiltzen dituzte gizarte-sareak, eta azken urteetan erabilera hori nabarmen hazi da. Adibidez, **Polizia Nazionalak Twitter-en** duen profilak ([@policia](https://twitter.com/policia)) 3 milioi jarraitzailetik gora du jada. Jakin nahi badu Poliziaren zein bulegotan eska dezakezu Nortasun Agiri Nazionala, edo zer egin behar duzun txakurrarekin autoan bidaiatzeko, nahikoa duzu mezua bidaltzea; denbora gutxian erantzungo dizute. Saiatu zaitetz!

@policia Zerbitzu publiko berria gizarte-sareen bitartez

Polizia Nazionalak Twitter-en duen profilak, jarraitzaile-kopuru handienetakoa duen polizia da mundu mailan. Segurtasunarekin eta larrialdiekin zerikusia duen informazioa emateaz gain, herritarren eskaerei erantzuten die, hau da, bi noranzko tresna da. Profilaren arrakasta, neurri batean, hizkera informala erabiltzea da, batez ere gazteei gertukoa iruditzen zaiena. Hortaz, ez da bakarrik Polizia Nazionalak jakinarazpenak egiteko tresna; herritarrek ere erabil dezakete, Poliziarekin elkarlanean aritzeko, informazioa emanez edo kudeaketa-eremu horri buruzko informazioa eskatuz. Gobernu Irekiak garrantzia ematen dio segurtasunari.



Gizarte-sareak gobernuek, administrazio publikoek eta herritarrek eskura dituzten teknologia dira. Gizartean oso zabaldua dauden tresnak dira, beraz, **komunikatzeko bide bikoitza** ahalbidetzen du, modu erraz, fidakor eta irisgarrian.

Gizarte-sareak, Gobernu Irekiaren tresnak

- Komunikatzeko tresna garrantzitsuenak dira, eta informazioa azkarren zabaltzeko balio dutenak, erabiltzaile kopurua etengabe handitzen da eta.
- Herritarrek askatasunez eta gardentasunez eman dezakete beren iritzia.
- Komunikazio zuzena dago herritarrekin, elkarriketen bidez.
- Haiei esker, Administrazio publikoak eta herritarrek elkarlanean aritu daitezke, eta horrek zerbitzu publikoak hobetzen laguntzen du.
- Publikoaren eta pribatuaren arteko muga lausotu egiten da.
- Herritarrek proposamenak helarazi ahal dizkiete administrazio publikoei zuzenean.
- Erraz erabili ahal dira: mugikorrean eta etxetik irten beharrik gabe.
- Galdeketa eta kontsulta publikoak egiteko aukera ematen dute.
- Eztabaidatzeko foroak eta lantaldeak sortu ahal dira.
- Beste teknologia batzuk baino askoz merkeagoak dira.

2.0 tresnek pisu handia dute komunikatzeko modua eraldatzeko prozesuan, eta lagungarriak izan daitezke **herritarren konfiantza hobetzeko**. Bestalde, gobernuek eta administrazio publikoek **gizarte-sareak eta 2.0 web-eko tresnak** (blogak, txatak, argazkiak edo bideoak argitaratzea...) erabiltzen dituztenean, **formaltasun gutxiagorekin eta espontaneoki** egiten dute; horri esker, argiago ikus dezakegu beren eguneroko lana zer nolakoa den, eta, gainera, beren jardueratan nahastu ahal gara. Hala ere, gogoan izan behar dugu Administrazioan izapideak egin behar ditugunean —adibidez, eskubideren bat baliatzeko, edo eskaerak aurkezteko—, 39/2015 Legean adierazten diren bideak erabili behar ditugula, Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

LABURPENA

Gida didaktiko honen bitartez, **Gobernu Irekia** zer den azaldu nahi izan dizugu. Hasieran, agian, urrutiko zerbait iruditu zaizu; orain, ordea, zuzenean eta gertutik eragiten dizun gaia dela ulertu duzulakoan gaude. **Gobernu Irekia** filosofia bat da, gure gizartea gobernatzeko eta bai gobernuak bai administrazio publikoak ulertzeko modu berria. Filosofia honen oinarriak **gardentasuna**, **kontu ematea**, **parte-hartzea** eta **elkarlana** dira, eta helburua zera da: herritarren ezagutza aprobetxatzea gure gizartea hobetzen lagundu dezaten. Hainbat fase dituen bidaia da, eta gizarte osoaren laguntza behar da, zurea ere bai. Hemendik aurrera, zuk ere **Gobernu Irekiaren** komunitatearekin bat egitea espero dugu. Zure laguntza behar dugu.

GOBERNU IREKIA HEZKUNTZAREN ARLOAN TXERTATZEA

Orain arte, **Gobernu Irekiaren** alderdi teorikoa eta kontzeptuala ikusi dugu, eta adibide praktikoa batzuk ere jarri ditugu. Hemendik aurrera, **Gobernu Irekiaren** printzipioak praktikara eramango ditugu ikasgelan eta ikastetxean. **Nola txertatu ahal dira Gobernu Irekiaren balioak zure institutuan?**



Zure institutuak zenbait organo ditu, “governatzeaz” arduratzen direnak: zuzendaritza –zuzendaria, idazkaria eta ikasketaburua–; irakasleria eta eskola-kontseilua –talde honetan sartzen dira irakasleak, ikasleen gurasoak, administrazio eta zerbitzuetaiko langileen ordezkariak, ikasleak eta zentroari dagokion udaleko ordezkariak–.


Datozen ataletan azalduko dizugu nola lortu ahal duzun **institutu irekia**. Hau da, zure institutuan gardentasunez jardun dadila nahi dugu; institutua “governatzen” duten pertsonak beren ekintzen kontu eman dezatela; bai ikasleek bai irakasleek erabakiak hartzeko prozesuan parte har dezatela; eta beste eragile eta erakunde batzuk

elkarlanean aritu daitezela, zentroak eskaintzen duen zerbitzu publikoa hobetzeko: hezkuntza.

Hona hemen zenbait ekintza hori lortzeko, eta bidean eman ditzakezun urrats batzuk.

Hezkuntza-zentro gardena lortzeko...

Gogoan izan **gardentasunari** esker Administrazio Publikoengandik eskuratu ahal dugula nahi dugun informazioa. Kasu honetan, zure institutuari buruzko informazioa izango da. Institutu gardena lortzeko, kontuan hartu behar duzu gardentasunari buruzko legea dagoela. Bertan ezarrita dago zer nolako informazioa eskatu ahal den, gardentasunari buruzko legeak kanpo uzten dituen gaiak kontuan hartuta. Hala ere, informazio ugari dago eskatzeko, erabiltzeko eta berrerabiltzeko. Hona hemen oinarriko hiru urratsak institutu gardena lortzeko: lehenik, informazioa hautatzea; bigarrenik, behar dugun informazioa eskatzea; eta, azkenik, informazio hori aztertzea eta dagokion testuinguruan berrerabiltzea.



1. urratsa: Identifikatu arazoa eta helburuak

Ikastetxeari (edo beste edozein administrazio publikori) informazioa eskatu nahi badiogu, lehenik eta behin, argi izan behar dugu informazio horrekin zer lortu nahi dugun. Hasteko, pentsatu behar dugu zer jakin nahi dugun: maila guztietako ikasleen batez besteko notak, ikasketa-plana hobetzeko proposamena egiteko; bulego-materialean gastatutako dirua, aldaketak proposatzeko; edo irakasle bakoitzeko zenbat ikasle dauden, horretan ere hobekuntzak proposatzeko. Arazoa eta helburuak argi ditugunean, hurrengo urratsa emango dugu: informazioa hautatu.

2. urratsa: Hautatu informazioa

Hasteko, komeni da ikastetxeari buruz behar duzun informazioaren katalogoa prestatzea. Institutuei buruzko informazio mordo dago, beraz, ezinbestekoa da jakitea zer nolako informazioa eskatu nahi dugun eta zer datu interesatzen zaizkigun. Adibidez, honako hauek eskatu ahal ditugu: zentroaren urteko programa orokorra (bertan ageri dira ikasgai guztien programak); hezkuntza proiektua (ikasleekin eta haien familiekin duen proiektua azaltzen du); zentroaren emaitza akademikoak (batez besteko notak maila bakoitzean, eta gaingitu ez duen ikasle kopurua); ikasgela bakoitzean dagoen ikasle kopurua; irakasle kopurua; zentroaren

urteko aurrekontua eta diru hori zertarako erabiltzen den. Aurreko puntuan erabakitakoaren arabera eskatuko dugu informazioa.

3. urratsa: Eskatu informazioa

Argi daukazunean zer informazio behar duzun, adieraz ezazu idatzizko dokumentu batean eta entregatu zentroan. Horretarako, argudiatu dezakezu Gardentasunari buruzko Legearen babespean eskatzen



duzula. Gogoan izan informazioa mugatuta dagoela, adibidez, datu pertsonalak eskatzen direnean. Halaber, gogoan izan informazioa konplexua izan daitekeela, eta beharbada denbora behar dela zenbait datu biltzeko.

4. urratsa: Aztertu eta berrerabili informazioa

Datu guztiak jaso dituzunean, hasi zaitezke haiek aztertzen. Hala, jakingo duzu zein den zure institutuaren maila akademikoa, edo guztira zenbat ikasle eta irakasle dauden; eta zentroaren urteko programa ere ezagutuko duzu. Informazio hori aztertzean, sakonago ezagutuko duzu zure institutua; argi ikusiko duzu zeintzuk diren bere alderdirik onenak, eta zertan hobetu daitezkeen. Gainera, informazio hori berrerabili ahal duzu, zure udalerriko beste zentro batzuekin alderatuz.

Eskatu duzun daturen bat eman ez badizute, laguntza eska diezaiokezu Gardentasun Kontseiluari, informazioa eskatzeko duzun eskubidea babes dezan. Ez da zaila institutu gardena lortzea, baina denon interesa behar da, eta zentroak ere ahalegin handia egin behar du.

Amaitzeko, informazio hori berrerabili ahal duzu, formatu berrian aurkeztuta. Horretarako, hartu institutuak eman dizun informazioa eta prestatu produktu digitalen bat (grafikoa, aurkezpena, infografia, horma-irudia, bideoa...) zuk aukeratzen duzun tresnarekin; gero, egin aurkezpena ikaskideen aurrean, informazio hori nola eskuratu duzun jakin dezaten.

Gardentasunaren alde lanean

Pentsa ezazu zeri buruzko informazioa behar duzun (ikastetxearena edo beste Administrazio Publiko batena), baina ez ahaztu lege ezarritako mugak. Jarrai iezaezu orain arte azaldu ditugun urratsei eta eskatu informazioa arazo edo egoera jakin baten xehetasunak ezagutzeko, arazoa konpontzeko eta informazioa berrerabiltzeko. Zure institutuaren kasuan, adibidez, batxilergoko ikasleek (gela bakoitzak) ikasgai bakoitzean izan duten batez besteko nota eskatu ahal duzu. Hala, gela bakoitzak izan ohi duen den batez besteko nota ezagutu ahal izango duzu, eta zure gelan duzuenarekin alderatu, denon artean nota hori hobetzen saiatzeko. Berrerabili datuak: prestatu infografia batez besteko notekin, ikasgaiaren arabera antolatuta. .

Parte hartzeko institutua lortzeko...

Parte-hartzea institutuko hainbat prozesu eta jardueratan isla daiteke. Egun, ikasleek hainbat mekanismoren bidez parte hartu ahal dute. Institutu irekiaren bidez, ordea, parte-hartze hori urrunago eraman nahi dugu.

Ikasgelako edo Eskola Kontseilurako ordezkaria hautatzeko bozketan parte hartu ahal dugu. Edo, bestela, hain ezagunak ez diren aukera batzuk daude, hala nola, azterketen egunak erabakitzeko prozesuan parte hartzea, edo gai jakin bati buruzko eskola berezia (indargarria) proposatzea. Denek balio dute parte hartzeko.

Zer egin behar dugu parte hartzea sustatzen duen institutua lortzeko? Lehenik eta behin, gaur egun zein prozesutan parte hartu ahal den identifikatu behar da, eta hemendik aurrera zein beste prozesutan parte hartu litekeen. Gero, nola parte hartuko den erabaki behar da: mekanismoak, baliabideak eta abar. Eta, azkenik, jakina, parte hartu behar da! Parte hartzen ez baduzu, egindako lan guztia alferrik izango da.



▲ 1. urratsa: Identifikatu non dagoen parte-hartzea eta non egon daitekeen hemendik aurrera.

Lehenik eta behin, institutuan gaur egun zein prozesutan parte hartu ahal den identifikatu behar duzu. Ohikoena da ikasleek bozketa egitea ikasgelako eta Eskola Kontseilurako ordezkaria hautatzeko. Horrez gain, ikasleen elkarrekin batean edo antzeko talde batean parte hartzea ere ohikoa da. Alabaina, ez ahaztu parte-hartzea askoz urrunago doala. Beraz, pentsa ezazu nola aplika dezakegun beste arlo batzuetan: ikasturte amaierako bidaia aukeratzea, ikasgelako ikasle guztien izenean erabakiak hartzea edo zentroaren zuzendariari kexak zein iradokizunak helaraztea. helburuak argi ditugunean, hurrengo urratsa emango dugu: informazioa hautatu.

▲ 2. urratsa: Aztertu parte hartzeko modua

Prozesu batzuetan, parte hartzeko moduak mugatuak dira, prozesuaren izaera dela eta. Adibidez, ikasgelako eta Eskola Kontseilurako ordezkaria hautatzeko, isilpeko bozketa egin behar da, boto-ontziak erabiliz. Alabaina, parte hartzeko modu berritzaileak proposatu ahal ditugu, esaterako, Internet bidezko galdeketa, eztabaida-foroak edo aurrez programatutako bilerak, erabakiak denon artean hartzeko.

▲ 3. urratsa: Parte hartu!

Agerikoa dirudi, baina oso garrantzitsua da zuk ere erabakiak hartzeko prozesu horietan parte hartzea, arrazoiak eta parte hartzeko modua edozein dela ere. Parte hartzen ez baduzu, besteek nahi duten erabakia hartuko dute. Hortaz, ez galdu aukera eta baliatu zure eskubidea aktiboki.

Gardentasunaren alde lanean

Kasu honetan, ikasturte amaierako bidaian ardaztuko gara. Zuk eta zure ikaskideek erabaki behar duzue, besteak beste, noiz eta nora joan, eta bidaiaren iraupena. Zure ustez, zein da modurik egokiena erabaki horietan parte hartzeko? Egin debatea ikasgelan, modurik egokiena aukeratzeko, eta egin lan elkarrekin, parte-hartzearen bidezko prozesua arrakastatsua izan dadin. Ikasturte amaierako bidaia bikaina prestatuko duzue. Egin duzuen lana azaltzeko, bideo, dokumentu labur, infografia edo aurkezpen txiki bat prestatu ahal duzue. Ikaskideentzako oso interesgarria izango da jakitea nola egin duzuen.

Elkarlaneko institutua lortzeko...

Ikasleak, irakasleak eta institutuko gainerako langileak beste eragile sozialekin —beste institutu batzuk, Udala, auzoko elkarteak, GKEak, enpresa edo erakunde publiko zein pribatuak— elkarlanean aritzea lagungarria izan daiteke hezkuntza hobetzeko. Adibidez, polizia segurtasunari buruzko hitzaldia eman dezake; horretarako, zentroa elkarlanean aritu behar da polizia-kidegoarekin. Edo, eskolaz kanpoko ekintzak antolatu nahi badira eskola curriculumean sartuta ez dauden

jarduerak egiteko —dantza, igeriketa, margolaritza, antzerkia...—, elkarlanean aritu behar da zerbitzu horiek ematen dituzten GKE-ekin edo enpresekin.

Eskola barruan ere elkarlana sustatu daiteke, adibidez, taldeen artean. Ikasturte amaierako bidaia antolatzeke modurik egokiena, beharbada, irakasleek, ikasleek (talde guztiak) eta ikasleen gurasoen ordezkariak elkarrekin lan egitea da. Hala, Eskola Kontseilua adibide bikaina da; bertan, irakasleek, ikasleen gurasoek, administrazio eta zerbitzuak langileen ordezkariak, Udalak eta ikasleek elkarrekin lan egiten dute. Nola eraman dezakegu prozesu hori beste arlo batzuetara?



▲ 1. urratsa: Identifikatu elkarlanean aritzeko aukera eskaintzen duen arazoren bat.

Eskola Kontseiluan ez ezik, beste arlo batzuetan ere parte hartu daiteke, eta, askotan, parte-hartze hori ezinbestekoa da. Identifikatu behar duzu zein arlotan komeni da elkarlanean aritzea. Orain arte, parte hartzeko egoera hauek ikusi ditugu: bidaia antolatzeke, ikasturte bukaerako ekintzak antolatzeke, eskolaz kanpoko ekintzak kudeatzeko edo ikastetxean jardunaldiak zein ikastaroak egiteko. Gogoan izan berrikuntza ezinbestekoa dela elkarlanean aritzean.

▲ 2. urratsa: Identifikatu elkarlan horretarako behar diren eragileak eta elkarlana non bideratuko den.

Arazoaren arabera erabakiko da zein eragilek lan egin behar duten elkarrekin: eragile soziala, auzoko elkarteak, GKEak, enpresa, herritarren taldea, irakasleak... Hori dela eta, argi izan behar duzu elkarlanerako espazio horretan zein pertsonak eta erakundeak parte hartuko duten, eta elkarlana nola antolatuko den: aldizkako bileretan, Interneteko foroetan, bietan... Hori erabaki aurretik, elkarlanari buruzko dokumentua prestatzea gomendatzen dizugu, eta bertan xehetasun horiek idaztea. Elkarlanak arrakasta izateko, funtsezkoa da ondo antolatzea.

▲ 3. urratsa: Elkarlana martxan jartzea

Elkarrekin lan egiteak esan nahi du arazoa hauteman denean eta prozesuan esku hartuko duten eragileak aukeratu direnean, lanean hasi behar dela. Irakasleen eta ikaskideen laguntzarekin, arazoa konpontzeko modu berriak bilatu behar dituzu, edo beste eragile batzuek (adibidez, gurasoek, Udalak, auzoko elkarteak) egoera konpontzen laguntzeko bide berriak.

Elkarlanean arituz, arazoa konpontzeko modu berri, berritzaile eta desberdina lortu nahi da. Elkarlanaren emaitza nola bideratu erabaki ondoren, ondorioak atera behar dira. Parte hartu duten eragile guztiek eraiki eta adostu behar dituzte, egokitzat hartu ahal izateko. Jarraian, emaitzak aztertu behar dira, prozesua positiboa izan den eta hobetu daitekeen jakiteko.

Elkarlanean

Aurreko adibidearekin jarraituz (ikasturte amaierako bidaiarena), pentsatu zein eragilek, pertsonak zein taldek lagundu ahal duten erabakia hartzen (adibidez, aurreko urtean bidaia egin zuten ikasleek, edo horrelako bidaiak antolatzen dituen enpresa espezializaturen batek).

INSTITUTU IREKIA LORTU DUGU. NOLA JARDUN BEHAR DUGU HEMENDIK AURRERA?

Zure institutuan **Gobernu Irekia** ezartzeko prozesuak egin dira. Zer gertatuko da orain? Orain, zure ikastetxean hartu beharreko erabakiak adostu egiten dituzte hezkuntza-komunitateak eta lotutako eragile guztiak, hezkuntzaren esentzia eta kalitatea kaltetu gabe:

- Institutu gardena da, informazio guztia herritarren esku jartzen duena, eta erabakien kontu ematen duena;
- Parte-hartzea sustatzen duen institutu bilakatu da, non erabakiak elkarrekin hartzen diren;
- Elkarlaneko institutu bilakatu da; ikasleen, beren familien, hezkuntza-komunitatearen eta, oro har, gizartearen iritzia aintzat hartzen du arazoak konpondu behar direnean.

Hitz batez, atek ireki zaizkio Gobernu Irekiari; aldaketak egin dira ikastetxeak (zehazki) eta administrazio publikoak (oro har) gobernatzeko modua aldatzeko.

BALIABIDEAK: GEHIAGO JAKITEKO

Gobernu Irekiari buruz gehiago jakiteko, adibide arrakastatsuak ezagutzeko eta bestelako dokumentu interesgarriak irakurtzeko, hona hemen informazio zabala duten estekak.

Baliabide elektronikoak

▲ Gardentasun eta Gobernu Irekiaren Atariak

- Estatuko Administrazio Nagusiaren Gardentasun Ataria
<http://transparencia.gob.es/>
- Andaluziako Gobernuaren Gardentasun Ataria
<http://www.juntadeandalucia.es/transparencia.html>
- Aragoiko Gobernuaren Gardentasun Ataria
<http://transparencia.aragon.es/>
- Asturiasko Gobernu Irekiaren Ataria
www.asturias.es/transparencia
- Kantabriako Gobernuaren Gardentasun Ataria
<https://transparencia.cantabria.es/es/inicio>
- Gaztela-Mantxako Gardentasun Ataria
<http://transparencia.castillalamancha.es/>
- Gaztela eta Leongo Gobernu Irekiaren Ataria
<https://gobiernoabierto.jcyl.es>
- Catalunya-ko Gobernu Irekiaren Ataria
<https://governobert.gencat.ca/ca/transparencia/index.html>
- Ceutako Gobernuaren Gardentasun Ataria
<https://ceuta.transparencialocal.gob.es/>
- Valentziako Erkidegoko Gobernuaren Gardentasun Ataria
<http://www.gvaoberta.gva.es>

- Extremadurako Gobernu Irekiaren Ataria
<http://gobiernoabierto.gobex.es/transparencia/>
- Galiziako Gardentasun eta Gobernu Irekiaren Ataria
<https://transparencia.xunta.gal>
- Balear Uharteetako Gobernuaren Gardentasun Ataria
<http://www.caib.es/sacmicrofront/home.do?mkey=M1102141103432671913&lang=es>
- Kanariar Uharteetako Gardentasun eta Gobernu Irekiaren Ataria
<http://www.gobiernodecanarias.org/transparencia/>
- Errioxako Gobernuaren Gardentasun Ataria
<http://www.larioja.org/portal-transparencia/es>
- Madrilgo Erkidegoko Gobernuaren Gardentasun Ataria
<http://www.madrid.org/es/transparencia/>
- Melillako Gobernuaren Gardentasun Ataria
https://sede.melilla.es/melillaPortal/transparencia/se_principal1.jsp?language=es&codResi=1
- Murtziako Gardentasun eta Gobernu Irekiaren Ataria
<http://transparencia.carm.es/>
- Nafarroako Gardentasun eta Gobernu Irekiaren Ataria
<http://www.gobiernoabierto.navarra.es/es/transparencia>
- Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren Gardentasun Ataria
<http://www.gardena.euskadi.eus/inicio/>
- Gobernu Irekirako Aliantza (Open Government Partnership)
<https://www.opengovpartnership.org/>
- Botere Judizialaren Gardentasun Ataria
<http://bit.ly/2lm4RvB>
- Madrilgo Udalaren Ataria herritarren parte-hartzea sustatzeko
<https://decide.madrid.es/>

▲ Datu Irekien atariak

- Datu Irekien ataria, Espainiako Gobernua
<http://datos.gob.es/>
- Datu Irekien ataria, Europar Batasuna
<https://data.europa.eu/euodp/es/data/>

▲ Gardentasun Kontseiluen atariak:

- Espainiako Gardentasun Kontseiluaren Ataria
http://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/index.html
- Andaluziako Gardentasun Kontseiluaren Ataria
<http://www.ctpdandalucia.es/es>
- Aragoiko Gardentasun Kontseiluaren Ataria
<http://transparencia.aragon.es/CTAR>
- Asturiasko Gardentasun Kontseiluaren Ataria
http://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/asturias.html
- Kantabriako Gardentasun Kontseiluaren Ataria
http://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/Cantabria.html
- Gaztela-Mantxako Gardentasun Kontseiluaren Ataria
http://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/castillalamancha.html

- Gaztela eta Leongo Gardentasun Kontseiluaren Ataria
<https://www.procuradordelcomun.org/>
- Informazio Publikoa lortzeko Eskubidea bermatzeko Batzordea
<https://www.gaip.cat/ca/inici/>
- Ceutako Gardentasun Kontseiluaren Ataria
http://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/ceuta.html
- Valentziako Erkidegoko Gardentasun Kontseiluaren Ataria
<http://www.conselltransparencia.gva.es/>
- Extremadurako Gardentasun Kontseiluaren Ataria
http://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/extremadura.html
- Galiziako Gardentasun Kontseiluaren Ataria
<http://www.valedordopobo.gal/es/el-vaedor-do-pobo-organo-de-control-de-la-transparencia/>
- Balear Uharteetako Gardentasun Kontseiluaren Ataria
<https://www.caib.es/sites/informaciopublica/ca/inici/?campa=yes>
- Kanariar Uharteetako Gardentasun Kontseiluaren Ataria
<https://www.transparenciacanarias.org/>
- Errioxako Gardentasun Kontseiluaren Ataria
http://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/larioja.html
- Madrilgo Erkidegoko Gardentasun Kontseiluaren Ataria
http://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/madrid.html
- Melillako Gardentasun Kontseiluaren Ataria
http://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/melilla.html
- Murtziako Gardentasun Kontseiluaren Ataria
<http://transparencia.carm.es/consejo-de-la-transparencia-de-la-region-de-murcia>
- Nafarroako Gardentasun Kontseiluaren Ataria
<http://www.gobiernoabierto.navarra.es/es/consejo-transparencia/consejo-transparencia-navarra>
- Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea
<http://www.gardena.euskadi.eus/transparencia/-/derecho-de-acceso-a-la-informacion-publica/>

Argitalpenak

- Espainiako Gobernu Irekiaren III. ekintza-plana (2017).
http://transparencia.gob.es/transparencia/transparencia_Home/index/Gobierno-abierto/allPlanAccion.html
- Gobernu Irekiari buruzko Gutun Iberoamerikarra (2016).
https://www.sfp.gov.py/sfp/archivos/documentos/CIGA_2016%20final_knawtdh9.pdf
- Telekomunikazioen eta Informazio Gizartearen Behatoki Nazionala (2013). Gobernu Irekiaren eskaria eta erabilera Espainian.
http://www.ontsi.red.es/ontsi/sites/ontsi/files/demanda_y_uso_de_gobierno_abierto_en_espana.pdf
- Criado, J. Ignacio; eta Ruvalcaba, E. (2017) ¿Qué es y qué se entiende por Gobierno Abierto? Análisis de la percepción e implementación del Gobierno Abierto en el ámbito local español.
<http://bit.ly/2zTh3yq>
- Hainbat idazle (2014). Guía práctica para abrir Gobiernos. Manual de Open Government para gobernantes y ciudadanos.
[http://www2.congreso.gob.pe/sicr/cendocbib/con4_uibd.nsf/F0CE9C642E7BC17205257F1400075324/\\$FILE/get_file.pdf](http://www2.congreso.gob.pe/sicr/cendocbib/con4_uibd.nsf/F0CE9C642E7BC17205257F1400075324/$FILE/get_file.pdf)
- Xarxa d'Innovació Pública. (2014) 42 voces sobre el Gobierno Abierto. Eskuragarri hemen:
<http://www.xarxaip.cat/wp-content/uploads/2014/05/42-voces1.pdf>

TÍTULO: GIDA DIDAKTIKOA. GOBERNU IREKIA. BATXILLERGOA

“Este documento no es una traducción oficial. Aunque se ha procurado garantizar que esta versión corresponda a los textos originales, la única versión oficial es el texto en castellano disponible en el sitio web del INTEF y en el Portal de Transparencia de la Administración General del Estado”

Publicación incluida en el programa editorial del Ministerio de Política Territorial y Función Pública


Edita:

© Ministerio de Política Territorial y Función Pública

Ministerio de Educación y Formación Profesional

NIPO: 277-19-008-2 En línea

NIPO: 847-19-028-5 En línea



Imprime:

Subdirección General de Recursos, Publicaciones y Documentación
Ministerio de Política Territorial y Función Pública



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EDUCACIÓN
Y FORMACIÓN PROFESIONAL



INSTITUTO NACIONAL DE
TECNOLOGÍAS EDUCATIVAS Y DE
FORMACIÓN DEL PROFESORADO



MINISTERIO
DE POLÍTICA TERRITORIAL
Y FUNCIÓN PÚBLICA